



# **TERMINOLOGIA BATZORDEA**

## **2018-2019-2020 Jarduketa-plana**

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 25a

## Terminologiaren arloko lehentasunak ezartzea

### Terminologiaren arloko lehentasunak ezartzea

**Helburua:** aurretik identifikatuta daudenak berrikusi eta berretsi edo berriak proposatzea.

**Deskribapena:** terminologiaren maila desberdinetan (teknolektoak edo espezialitateko eremuak, eguneroko bizitzako hainbat eremu eta Administrazioa eta Zuzenbidea) euskaraz egin beharreko lanak, dauden hutsuneak, aztertu beharreko erabileremuak eta horien artean dauden premiak eta lehentasunak detektatu behar dira.

**Proposatzen diren lehentasunak:** Medikuntza, Zuzenbidea eta Herri-administrazioa, Irakaskuntza —bereziki lanbide-heziketa eta unibertsitate-maila—; kirolak eta esparru sozio-ekonomikoa (lan-mundua).

Terminologia-lanaren plangintza abian jarri zenetik, hekburu honi begira egin eta egiten ari dira proposamenak: ahalik eta (azpi)eremu gehienetako oinarrizko terminologia finkatzea, onartzea eta zabaltzea.

**Oharra:** 2018-2019-2020 Jarduketa-planean berrikusi eta jasoko dira.

**Data:** 2018ko apirila

## Terminologia-lanerako irizpideak proposatzea

### Terminologia-lanerako irizpideak finkatzea

**Helburua:** aurretik finkatutakoak berrikusi eta berretsi edo berriak proposatzea.

**Deskibapena:** terminologia-lana behar bezala egiteko, eta bereziki normalizazioari begira, nahitaezkoa da irizpideak finkatzea eta modu sistematikoan aplikatzea, normalizatzaileen subjektibotasunari ahalik eta lekurik txikiena utzirik. Terminoak onartzeko, baztertze eta termino berriak (neonimoak) sortzeko eta, batez ere, erabakien koherentzia mantentzeko, irizpide zehatzak eta ondo oinarrituak definitu eta idatziz eman behar dira. Dena den, nozioak aldatu eta egokitzen diren neurrian irizpideok ere aldatu beharko dira. Terminoak normalizatzeko orduan maila desberdinak hartu behar dira kontuan

### Onetsitakoak:



HIZTEGI BATUA-1.  
itzuliko irizpideak.doc



HIZTEGI BATUA-2.  
itzuliko irizpideak.doc

1. Irizpide **linguistikoak** (Hiztegi Batuan oinarrituak) **terminologikoak eta soziolinguintikoak / pragmalinguistikoak**. Esparru sozio-ekonomikoko irizpideak



MAILEGUAK ETA  
KALKOAK040422.doc

2. **Maileguen eta kalkoen** gaineko irizpideak
3. **Neologia-sorkuntza (Terminologia-arazo**en Inbentarioan jaso dira horren inguruan dauden



Arazo  
terminologikoen inber

zailtasunak

1. Eratorpena (euskaraz oso baliabide emankorra): aurrizkien eta atzizkien erabilera zehatza eta bereiztua aztertu eta finkatu behar da terminologian aplikatzeko.
2. Hitz-elkarketa (oso erabilia): baliabide honen mugak aztertu eta kasu desberdinak sailkatu behar dira; adjektibo erreferentzialak nola eman ...
4. **Normalizazio-txosten**aren eredia, arazoak sortarazten dituzten terminoen kasuan erabiltzeko



Normalizazio-txosten  
a\_eredua.doc



Definizioetarako  
Irizpideak 20140716.1

5. **Definizio terminologikoetarako** irizpideak

**Oharra:** irizpideak eta gainerakoak etengabe (lanak onesteaz batera) berrikusi eta eguneratu behar dira; beraz, aipatutako dokumentuak irekiak dira. Dokumentu eguneratuak <http://www.euskadi.eus/euskararen-corpus-terminologia/web01-a2corpus/eu/> helbidean daude. Arazo linguistikoen gaineko zalantzak Euskaltzaindiari helaraziko zaizkio.

**Data:** etengabe, epe-mugarik gabe.

## Kontzeptu bakarra izendatzeko hainbat termino daudenean, horien arteko lehentasunak ezartzea


### Sinonimoei ponderazio-markak finkatzea

**Helburua:** ponderazio-markak terminologia-lan guztietan modu sistematikoan erabiltzea.

**Deskribapena:** Terminoen fidagarritasunari buruzko informazioa ematea du helburu. Horrela, erabiltzaileek terminoak aukeratzeko orduan kontuan izan beharko dute informazio hori.

### Onetsitakoa:

Terminologia Batzordeak hainbat ponderazio-marka finkatu ditu terminoen fidagarritasunaren gaineko informazioa emateko:

- 0 Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)
- 1 Termino erabilia (Terminologia Batzordeak aztertu gabea baina besterik ezean erabiltzen dena)
- 2 Termino proposatua (adituek proposatua baina oraindik Terminologia Batzordeak normalizatu gabea)
- 3 Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)
- 4 Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua (Terminologia Batzordearen onespeneraren zain)
- 4  Termino normalizatua/gomendatua.

**Oharra:** erabiltzaileei eman beharreko informazioaren ondorioetarako, 3 eta 4 dira argitara ematen diren ponderazio-markak; gainerakoak, terminologoentzako tresna dira, bereziki.

**Data:** etengabe, epe-mugarik gabe.

## Egindako terminologia-lanak onartzea

### a) Batzorde teknikoak

#### a.1) 2018an egin beharreko batzorde teknikoak:

1. Arraunketa Hiztegia
2. Bake-epaitegiak Hiztegia
3. Albaitaritza Hiztegia
4. Aseguruak Hiztegia
5. Administrazio elektronikoa Hiztegia
6. Nautika Hiztegia
7. Ginekologia Hiztegia
8. Kardiologia Hiztegia
9. Sagardogintza Hiztegia
10. Zurgintza Hiztegia
11. Feminismoa, Berdintasuna
12. Lan-arloko Prozedura Hiztegia

#### a.2) 2019an egin beharreko batzorde teknikoak:

1. Oftalmologia Hiztegia
2. Nanoteknologia, Nanozientzia Hiztegia
3. Astronomia Hiztegia
4. Geomatika, Topografia Hiztegia
5. Akuikultura Hiztegia
6. Kalitatea Hiztegia
7. Entitate Geografikoak Hiztegia
8. Nutrizioa Hiztegia
9. Segurtasun publikoa Hiztegia
10. Sektore publikoko kontratuak Hiztegia
11. Hockeya Hiztegia

#### a.3) 2020an egin beharreko batzorde teknikoak:

1. Hizkuntzen teknologiak Hiztegia
2. Onkologia Hiztegia
3. Otorrinolaringologia Hiztegia
4. Nefrourologia Hiztegia
5. Psikiatria Hiztegia
6. Elikagaigintza Hiztegia
7. Arte grafikoak Hiztegia
8. Bioetika Hiztegia
9. Kriminologia Hiztegia
10. Kirol Zuzenbidea Hiztegia



## b) Egindako terminologia-lanak onartzea

**Helburua:** egindako terminologia-lanei onespena ematea.

**Deskribapena:** euskal terminologiaren lan-plangintzaren arabera, egindako terminologia-lanak ad hoc osatutako batzorde teknikoek aztertu eta landu ondoren, Terminologia Batzordeak onartu behar ditu.

Metodologia eta lan-prozedura:

Terminologia Batzordeak, bereziki, batzorde teknikoek atzemandako arazoak aztertu eta erabakiko ditu.

Bileren maiztasuna: Terminologia Batzordea bi hilabete eta erdian edo hiru hilabeteetan behin bilduko da. Batzordekideek aldeztu aurretik jakingo dute zein den hurrengo bilerarako prestatu beharreko lana; beraz, kideren batek bileraren batera joaterik ez badu bere ekarpena aldeztu aurretik bidali dezake posta elektronikoz.

→ Terminologia Batzordeak 2018-2019-2020an onartu behar dituen hiztegiak:

2018an:

- Lorezaintza Hiztegia
- Erlezaintza Hiztegia
- Zirkulazioa Hiztegia
- Arkeologia Hiztegia
- Igeriketa Hiztegia
- Neguko kirolak Hiztegia
- Banketxeak eta Aurrekia Hiztegia
- Arraunketa Hiztegia
- Bake-epaitegiak Hiztegia
- Albaitaritza Hiztegia

2019an:

- Nautika Hiztegia
- Feminismoa, Berdintasuna Hiztegia
- Lan-arloko Prozedura Hiztegia
- Hockeya Hiztegia
- Aseguruak Hiztegia
- Ginekologia Hiztegia
- Sagardogintza Hiztegia
- Zurgintza Hiztegia
- Kardiologia Hiztegia
- Entitate Geografikoak Hiztegia



2020an:

- Geomatika, Topografia Hiztegia
- Segurtasun Publikoa Hiztegia
- Nanoteknologia, Nanozientzia Hiztegia
- Astronomia Hiztegia
- Akuikultura Hiztegia
- Kalitatea Hiztegia
- Oftalmologia Hiztegia
- Sektore Publikoko kontratuak Hiztegia
- Nutrizioa Hiztegia
- Kriminologia Hiztegia (Zigor arloko delitu-faltak Hiztegiaren ordez egindakoa)
- Administrazio elektronikoa Hiztegia

Ahal bada, hiztegi hauek ere eramango dira Terminologia Batzordera:

- Kirol Zuzenbidea Hiztegia (Oinordetza Zuzenbidea Hiztegiaren ordez egindakoa)
- Onkologia Hiztegia
- Hizkuntzen teknologiak

## Terminologia-lanak zabaltzea eta gomendatzea

### Terminologia-lanak zabaltzea eta gomendatzea

**Helburua:** Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak zabaldu behar dira eta erabiltzaile estrategikoengana iritsarazi.

**Deskribapena:**

- EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa [www.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskadi.eus/euskalterm)
- Hiztegien pdf bertsioa: <http://www.euskadi.eus/hiztegiak-banku-terminologikoak-eta-entziklopediak/web01-a2eutres/eu/>
- Paperezko bertsioa.



Banaketa orokorraz gain (liburutegiak...), hiztegiek landutako eremuaren arabera, erabiltzaileak identifikatu (esparru sozio-ekonomikokoak, enpresak, Lanbide Heziketako ikastetxeak, hirugarren sektoreko enpresak, kirol-federazioak, kirol-elkartek...) eta horiei eskuratu behar zaizkie hiztegiak.

**Oharra:** zabalkundea egiten denean, gutun batekin batera bidali beharko da onetsitako terminologia erabiltzeko gomendio formala.

**Data:** 2018-2019-2020



## Erabiltzaileekiko harremanak eta gomendatutako terminologiaren ebaluazioa

**Helburua:** Terminologia Batzordeak gomendatutako terminologiaren ezarpen-maila ezagutzea.

**Deskribapena:**

Beharrezkoa da aztertzea eta ezagutzea Terminologia Batzordeak onetsitako terminoen arrakasta-maila:

- Gomendatutako terminologiaren aurrean terminologia-erabiltzaileek duten jarrera eta erreakzioak ezagutzeko.
- Erabiltzaileek TBk gomendatutako terminoak onartzen ez dituztenean, beste termino batzuk proposatzeko.
- Finkatutako terminologia behar bezala eta modu egokian zabaldu den ala ez jakiteko.

**Proposamena:**

- Terminoen ezarpena aztertzeko, gutxienez 10 urteko epea pasatu behar dela esaten da. Terminologia Batzordeak onartu zituen lehenengo hiztegiak esparru sozio-ekonomikokoak izan ziren eta 2009an argitaratu ziren. Beraz, legegintzaldi honen bukaerarako, pentsa dezakegu lehenengo azterketa bat egitea esparru horretan:

- Interneten bilaketak egiten (modu automatikoan).
- Galdetegiak prestatu eta erabiltzaileen eskuetan jarri (espresuki bidaliak edota EUSKALTERMen bertan jarritakoak).
- Termino batzuen erabileraren jarraipena egiteko azterketa zehatzak eta puntualak egin.

**Data:** 2020



## Lanerako proposamenak egin eta urteko jarduera-planean sartzea

### Lanerako proposamenak egin eta urteko jarduera-planean sartzea

**Helburua:** 2018-2019-2020ko epean egin beharreko lan berriak proposatzea.

**Deskribapena:** onartutako lehentasunak kontuan izanda, landu beharreko eremuen proposamena egin behar da.

2018, 2019 eta 2020an egitekoak diren hiztegiak

#### - Hiztegi berriak egin<sup>1</sup>:

2018an:

- Aurrekontuen Araubidea Hiztegia
- Kirol Zuzenbidea Hiztegia
- Segurtasun Publikoa Hiztegia
- Soziologia Hiztegia
- Arte plastikoak Hiztegia
- Zurgintza Hiztegia
- Feminismoa, Berdintasuna Hiztegi
- Hockeya Hiztegia
- Entitate Geografikoak Hiztegia

2019an:

- Sektore Publikoko kontratuak Hiztegia (eguneratu behar da lege berria dagoelako)
- Mekatronika Hiztegia
- Hizkuntzen teknologiak Hiztegia (eguneratu behar da desfasatuta gelditu delako)
- Xakea Hiztegia
- Bideo-jokogintza Hiztegia
- Hezkuntza Administrazioa Hiztegia
- Salbamendua eta sorospena Hiztegia

2020an:

- Urpekaritza Hiztegia
- Softwarea Hiztegia
- Odontologia Hiztegia
- Estatistika Hiztegia
- Tenisa. Erraketa-kirolak Hiztegia
- Diseinu industrialak Hiztegia
- Saiakuntza klinikoak Hiztegia
- Atzerriko gastronomia Hiztegia

<sup>1</sup> EUSKALTERM eguneratzeko eta elikatzeko lanen barruan kokatzen dira lanak.

## Terminologia Batzordearen bileren egutegi-aurreikuspena

### 2018an:

- Urtarrilak 25
- Apirilak 26
- Uztailak 19
- Azaroak 8

### 2019an:

- Urtarrila 17
- Apirilak 25
- Uztailak 18
- Azaroak 7

### 2020an:

- Urtarrilak 23
- Apirilak 23
- Uztailak 16
- Azaroak 12